

LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN PLEGUA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKOA, EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAREN BILTEGIRATZE-ALTZARIEN EKIPAMENDUA OSATUKO DUTEN ELEMENTU GUZTIEN PRODUKZIOA ETA/EDO HORNIDURA, INSTALAZIOA ETA MARTXAN JARTZEA KONTRATATZEKO.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Ekonomia- eta administrazio-klausulen plegu honen helburua da prestazioen irismena eta baldintzak arautzea eta zehaztea. Prestazio horiek, hain zuzen, honako hau arautuko dute: EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAREN biltegiratze-altzarien ekipamendua osatuko duten elementu guztien produkzioaren eta/edo horniduraren, instalazioaren eta martxan jartzearen kontratazioa, preskripzio teknikoaren orrian ezarritako baldintzen arabera.

Halaber, kontratuaren xedeak honako hauekin lotutako alde zuzeneko lanak eta eginkizunak barne hartuko ditu: garraioarekin, sarbidearekin, hustuketarekin, bilgarriak kentzearekin, muntaketarekin, amaierako garbiketarekin eta bilgarriak eta soberakinak kentzearekin eta kudeatzearekin lotutakoak. Gainera, eskaintza teknikoaren edukia bildu eta garatuko duen betearazpen-proiektuaren aurkezpena barne hartuko du.

2. - ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratatzailea EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOA da (hemendik aurrera FILMATEGIA).

Kontratazio-organoa Fundazioaren Patronatua da. Horrek, hala badagokio eta aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko arauari jarraituz, berariaz ahaldundu ahalko ditu kontratuarekin lotutako jardura jakinak betearazteko egokitzat jotzen dituzten pertsonak.

3.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratua ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkezten duen lizitatzailerari esleituko zaio, prozedura irekiaren bidez eta baldintzen agiri honen 12. klausulan zehaztutako balioespen-irizpideei jarraikiz.

4.- KONTRATUAREN DOKUMENTAZIOA

Kontratu-izaera izango dute egindako adjudikazioaren eraginez formalizatuko den kontratuak, klausula ekonomiko-administratiboen plegu honek eta preskripzio teknikoaren pleguak, baita adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzak ere.

Adjudikaziodunak sinatu beharko ditu agiri horiek guztiak, horiekin ados dagoela frogatzeko, kontratua formalizatzeko ekintzan.

5.- ENTREGATZEKO, INSTALATZEKO ETA MARTXAN JARTZEKO EPEA ETA LEKUA

Entregatzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko epea gehienez ere 60 egunekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori murriztu ahal izango dute lizitatzailleek euren eskaintzetan.

Entregatzearen, instalatzearen eta martxan jartzearen lekua FILMATEGIAREN biltegia izango da. Hori Donostiako Tabakalera eraikinaren 0 solairuan dago, Andre Zigarrogileen plazaren 1. zenbakian.

Hornidura instalatu, martxan jarri eta FILMATEGIAK hori egiaztatu ondoren, harrera-ekitaldia egingo da, eta horretarako "onarpen-testa" izeneko dokumentua sinatuko da.

6. - LIZITAZIORAKO GEHIENEZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua: 206.677,60 € BEZik gabe.

Aipatutako lizitaziorako gehienezko aurrekontuari murrizketa bat egin dakioke lizitatzailleek aurkezten duten proposamen ekonomikoan, baina prezioa ezingo da, inola ere, handiagoa izan.

Lizitatzailleek eskainitako prezioaren barnean egongo dira honako hauek: produkzioari eta/edo hornidurari, instalazioari eta martxan jartzeari, hala nola entregari, garraioari eta aseguruari atxikitako azalpen guztiak, eta langileekin lotutako gastu guztiak (hau da, ordainsariak eta gizarte-segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, bajek edo gaixotasunek eragindako ordezkapenak, banakako istripuen aseguruak eta abar) eta, hala behar izanez gero, joan-etorrietarako eta egonaldietarako kostuak. Baita honako hauek ere: tasa ofizialen zenbatekoa eta jarduera egiteari egokitu ahal zaizkion gastu guztiak eta beste tributu batzuk, BEZik gabe, hori kontu-sail independente gisa adieraziko baita aurkeztuko den eskaintzan.

Prezioak barne hartuko ditu honako hauek: dauden instalazioak egokitzeko eta/edo aldatzeko beharrezkoak diren igeltserotza-lanak eta beste gremio batzuen lanak eta ekipamendu guztiak martxan jartzeko konexioak, hala behar izanez gero. Baita honako hauek ere: altzarien ekipamenduak muntatu bitartean egindako lan mota guztien erremateak, lizentziak eta baimenak, instalazioak legeztatzeko eta martxan jartzeko egokiak direnak.

FILMATEGIAK jasan beharreko BEZa kontu-sail independente gisa adieraziko dute lizitatzailleek.

Kontratuaren guztizko balio estimatua, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 88. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, 206.677,60 euro da, BEZik gabe.

7.- PREZIOA ORDAINTZEA

Faktura “onarpen-testa” sinatzen denetik 10 eguneko epean igorri beharko da.

FILMATEGIAK fakturaren zenbatekoa ordainduko du 30 eguneko epean, plegu honen 26. klausulan aipatutako “onarpen-testa” sinatzen den egunetik hasita, betiere faktura aurreko lerrokadan adierazitako epean igorri bada eta FILMATEGIAREN oniritzia badu.

Baldintzen agiri honetan xedatutako kontratu-xedetik kanpo egindako lan edo hornidurak ez dira ordainduko, ezta FILMATEGIAK aurretik eskatu ez dituenak ere.

8.- PUBLIZITATEA

Lizitazioa eta kontratuaren esleipena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo probintziako egunkari batean eta FILMATEGIAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Honako webgune honen bitartez jo ahal izango da profil horretara: www.contratacion.euskadi.eus.

Iragarki hori adjudikaziodunak ordainduko du.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

Adjudikaziodunak, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea ordaindu beharko du, eta horren zenbatekoa kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren (BEZik gabe) % 5 izango da.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailleak ordaindu beharko du hizpide dugun berme hori. Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango du, FILMATEGIAK ondore horretarako egindako eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bermea SPKLTBko 96. artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan era daiteke.

Ezingo dira baliabide elektronikoak erabili bermea eratu dela frogatzeko.

Abal gisa eratzten bada, plegu honetako **I. eranskinean** jasotako eredura egokituko da.

Bermea SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epea amaitu denean eta adjudikaziodunak kontratuko betebeharrak bete ondoren.

Behin betiko bermearen gainean adjudikaziodunari eska dakizkiokeen zigorrak eta kalte-ordainak gauzatzeko badira, adjudikaziodunak bermea berrezarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, haiek gauzatu eta hamabost egun naturaleko epean. Hori egin ezean, kontratua indargabetzeko kausa sortuko du.

Kontratuaren aldaketa baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, bermea berregokitu beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan, eta adjudikaziodunak hamabost egun naturaleko epea izango du hori egiteko, aldaketaren jakinarazpena helarazi dioten egunetik kontatzen hasita.

Klausula honetan aurreikusi ez den guztietan, SPKLTBren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da.

10.- GAITASUN-BALDINTZAK

Jarduteko gaitasun osoa duten Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek FILMATEGIAREKIN kontratatu ahal izango dute, betiere kontratatuzko debekurik ez badute, eta, kaudimen ekonomiko eta finantzarioaz gain, gaitasun teknikoa edo profesionala dituztela frogatzen badute.

Lizitatuzaileek, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio. Aldi baterako lan-enpresen lanbide-gaikuntza ez da kasu hauetarako baliozkoa izango.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodun izateko ezinbestekoa izango da kontratuko prestazioak haien estatuetan edo eratze-arauetan adierazitako helburuen, xedearen edo jarduera-esparruaren arabera izatea.

FILMATEGIAREKIN kontratatuzko ahalmena izango dute Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresa ez-espainiarrek, baldin eta, ezarrita dagoen Estatu legeriaren arabera, dagokion prestazioa emateko gaituta badaude. Kasu horietan, SPKLTBren 58. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Estatu batek bere lurraldean kokatuta dauden enpresei baimen bereziren bat izatea edo erakunde jakin batekoak izatea eskatzen badie bertan dena delako zerbitzua emateko, enpresek egiaztatu egin beharko dute betetzen dutela betekizun hori. Europar Batasuneko kide ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatuzko, Espainiak dagokion estatuan duen diplomazia-misio iraunkorraren txostena

aurkeztu beharko dute, edo enpresako egoitzaren lurralde-esparruari dagokion kontsultexeko bulegoaren txostena. Txosten horren bitartez, justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak, funtsean, modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango Administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, eta, halaber, SPKLTBren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan.

Aldi baterako eraturiko enpresaburuen elkarteek FILMATEGIAREKIN kontratuak egin ahal izango dituzte, xede horrekin eratu badira, eta ez dute eskritura publikoan formalizatuta egon beharrik izango, harik eta kontratua esleitzen zaien arte. Elkarte horiei SPKLTBren 59. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

Lizitzaile guztiek ondoren adierazitako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko dituzte:

- Azken hiru ekitaldietako handiengan gutxienez kontratuaren balio estimatuaren bikoitzaren urteko negozio-bolumena izatea, kontratuaren xedearen esparruan.
- Azken bost urteetan, kontratuaren xedearen antzeko ezaugarriak eta tamaina dituzten 3 hornidura egin izana.

Halaber, lizitzaileek ziurtagiriak izan beharko dituzte sistema hauetan:

- ISO 9001 kalitatea bermatzeko sistemaren ziurtagiria edo antzekoren bat.
- ISO 14.001 ingurumena kudeatzeko sistemaren ziurtagiria edo antzekoren bat.

Gainera, nolahi ere, kontratua gauzatzeko lizitzaileei eskatuko zaie, horri atxikitako langileen artean, gutxieneko giza baliabide hauek jartzeko konpromisoa:

- Ingeniari bat, gutxienez erdi-mailako teknikariaren titulua duena eta gutxienez hiru urteko esperientzia duena kontratuaren xedearen antzeko lanetan.

Gutxieneko giza baliabide jakin batzuk jartzeko kontratua edo konpromisoa gauzatzeko aurrez aipatutako beharrezko kaudimena frogatzeko beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duten lizitzaileek, horiekin dituzten loturen izaera juridikoa kontuan hartu gabe, hori aitortu beharko dute eskaintzaren 1. gutun-azalean sartu beharreko aitorpenean, eta **II. eranskinaren** eredura doitu beharko dute. Halaber, eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitzaileak aurkeztu beharko du (14. klausulan ezarritako moduan eta **IV. eranskinaren** ereduaren arabera) inplikaturako enpresak hauxe dioen adierazpena: osoki ezagutzen dituela lizitzaileak parte hartuko duen lizitaziorako baldintzak; eskatutako kaudimena duela eta, atzeraezinezko asmoz, aipatutako lizitzailearen esku jarriko dituela, hura esleipenduna bada, kontratua gauzatzeko beharrezko baliabide guztiak (berariaz onartuz Kode Zibileko 1.257.2 artikuluan xedatutakoa, zeina ordeztzea edo aldatzea administrazioak berariaz onartu behar duen). Idazki hori aurkezteak ekarriko du FILMATEGIAK konpromiso hori onartzea, aipatutako lizitzailea adjudikaziodun gertatuz gero.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzailleak Kontratazio Organoaren aurrean egiaztatu beharko du, kontratua esleitu aurretik, 14. klausulan eskatutako dokumentu baliodunak dituela. Dokumentu horiek egiaztatu behar dute FILMATEGIAREKIN kontratua egiteko legez ezarritako baldintzak eta klausula honetan eskatutako gaitasun- eta kaudimeneskakizunak betetzen dituela proposamenak aurkezteko epearen azken egunean. Sinestamendu hori egiaztatuko da 14. klausulan ezarritako moduan.

Nolanahi ere, Kontratazio Organoak lizitatzailleei eskatu ahal izango die, adjudikazio-proposamena erabaki aurreko edozein unetan, aurkez dezatela 14. klausulan adierazitako dokumentazioa.

11.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Eskaintza aurkeztuz gero, enpresariak baldintza-agiri hau eta baldintza teknikoaren agiri oso-osoarik eta inolako salbuespenik gabe onartzen dituztela ulertuko da. Baldintza teknikoak aginduzko betebeharrak teknikoak dira.

Plegua eta baldintza teknikoaren orria eskuragarri egongo dira proposamenak aurkezteko epea irekita dagoen bitartean, FILMATEGIAREN kontratatzailearen profilean.

Interesa duten lizitatzailleek bisita egin ahal izango dute FILMATEGIAREN biltegira. Hori Donostiako Tabakalera eraikinaren 0 solairuan dago, Andre Zigarrogileen plazaren 1. zenbakian. Bisita 2017ko abuztuaren 2an egingo da, 9:00etan, eta aldeaz aurretik asistentzia baieztatu beharko da helbide elektronikoa honetara idatziz (enpresaren izena, izen soziala eta joango diren pertsonen kopurua –lau gehienez- adierazi beharko dira): filMOTECA@filmotecavasca.com.

Lizitazioan parte hartzeko, lizitatzailleek **eskuz** aurkeztu beharko dituzte hiru gutun-azal itxi, FILMATEGIAREN bulegoetan (Tabakalera Eraikina, Andre Zigarrogileen plaza 1, 2. solairua, 20012 Donostia, astelehenetik ostiralera 8:00etatik 15:00etara), **azken lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik 15 egun balioduneko** epean. Horiek ondoren adieraziko den dokumentazioa bilduko dute eta, bertan, honako hauek adierazi beharko dira: enpresaren izena, proposamena sinatuko duen pertsonaren izen-abizenak eta zer izaeratan egiten duen, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa. Hori guztia modu irakurgarrian idatzi beharko da.

Gutun-azal bakoitzaren atzealdean, berriz, honako hau idatziko da: *“Lizitazioan parte-hartzeko proposamena, prozedura irekiaren bidezkoa, EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAREN biltegi-iragarkia-ekipamendua osatuko duten elementu guztien produkzioa eta/edo hornidura, instalazioa eta martxan jartzea kontratatzeko”*. Kasuan kasuko zenbakia ere adierazi beharko da (1. gutun-azala, 2. gutun-azala edo 3. gutun-azala, dagokienaren arabera).

Gutun-azal bakoitzak azpian adierazitako agiriak bildu beharko ditu, eta, barnean, edukia orri independente batean erlazionatuta egon beharko da.

1. gutun-azala: «KONTRATATZEKO GAITASUNA»

- a) Gutun-azalean sartutako agirien zenbakitutako zerrenda, orri independente batean, baita jakinarazpenak zer bitartekoren bidez jaso nahi diren adieraztea ere; hori plegu honen **II. eranskinaren** ereduaren arabera egingo da
- b) Lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena, **II. eranskinean** ageri den ereduaren arabera, FILMATEGIAREKIN kontratua egiteko legezko baldintza guztiak eta plegu honen 10. klausulan eskatutako gaitasun- eta kaudimen-eskakizun guztiak betetzen dituela adierazten duena.

Agiri horrek adierazi beharko du lizitatzailleak borondatez onartzen duela lizitazio-, esleitze- eta gauzate-prozesuetatik sortutako datu guztiei gardentasun instituzionala ematea (adjudikaziodun gertatuz gero), horiek bukatu arte.

Atzerriko enpresen kasuan, erantzukizunpeko adierazpen horretan berariaz adieraziko da, aipatutako **II. eranskinean** aurreikusitako moduan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor litezkeen gertakari guztietan Espainiako edozein epaitegi- eta auzitegi-motaren jurisdikzioari men egingo diotela, eskaintzaileari egoki dakiokkeen atzerriko foruari uko eginda.

Halaber, enpresa lizitatzaillea izango balitz beste enpresa lizitatzaille baten/batzuen enpresa-talde bereko kide (ulertuko da hala direla Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan jasotako kasuetako batean daudenak), aurreko b) letran aipatutako adierazpenean egoera hori jakinaraziko da, taldeko beste enpresa lizitatzaillea(k) zein den/diren adierazita, aipatutako **II. eranskinean** aurreikusitako moduan.

- c) Zenbait enpresaburuk lizitazioan aldi baterako elkartuta parte hartu nahi izanez gero, kide bakoitzak aurreko b) letran aipatutako adierazpena aurkeztu beharko du.

Horrez gainera, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, guztiek sinatuta, elkartea eratzeko edo eratu dutenen izenak eta ezaugarriak adierazita, bai eta bakoitzaren partaidetza ere; halaber, adjudikaziodun gertatuz gero aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi beharko dute.

- d) Kontratua gauzatzeko, gutxienez agiri honen 10. klausulan adierazitako giza baliabideak jartzeko konpromisoa, **II. eranskinaren** eredura doituta.

Konpromiso honek funtsezko kontratu-betebeharraren izaera izango du SPKLTBren 223.f) artikuluan ezarritako ondoretarako; hortaz, hori ez betetzea kontratua indargabetzeko arrazoia izango da, FILMATEGIAK hala nahi badu.

Atzerriko enpresek gaztelaniara, euskarara edo ingelesera itzuli beharko dituzte aurkeztu beharreko dokumentuak.

FILMATEGIAK eskubidea du egokitzat jotzen dituen egiaztatze-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzeko, lizitatzailleek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko helburuarekin.

2. gutun-azala: «PROPOSAMEN TEKNIKOA»

Proposamen teknikoak atal hauek barne hartuko ditu, preskripzio teknikoen orrian ezarritakoari jarraikiz, **egitura, ordena eta eduki honekin:**

1. BULEGOAREN EKIPAMENDUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK, FUNTZIONALAK ETA DISEINUAREKIN LOTUTAKOAK

Lizitatzailleak memoria tekniko bat sartuko du, eta horrek atal hauen deskribapena barne hartuko du:

- a. Hornitu beharreko produktuaren kalitatea: sendotasunaren justifikazioa, hori osatzen duten deskribapena eta egokitasuna, eta estimatutako iraunkortasuna.
- b. Banaketaren funtzionalitatea. Altzarien antolaeraren eraginkortasuna bermatu behar da, apalategi guztietara sartu ahal izateko, bitarteko osagarriekin, hala behar izanez gero.
- c. Altzarien diseinua eta estetika. Bi apalategi motetan soluzio homogenea aurkeztu behar da, seinaleetika-sistema izango duena.
- d. Altzarien biltegitzeko gaitasuna:
Espazio erabilgarria aprobetxatzea, garaierari eta azalerari dagokienez, eta, horretarako, proposamenaren neurketak zehaztea, preskripzio teknikoen orrian ezarritako gutxienekoak bermatze aldera.
- e. Ingurugiroari lotutako alderdiak: Neurriak deskribatzea, eskainitako horniduren ekoizpenak ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena izateko; baita hauek deskribatzea ere: materialen birziklapen-prozedurak, hondakinen sorrera eta kudeaketa, birziklatutako edo berrerabilitako materialen erabilera, material ekologikoen erabilera eta abar.
- f. Hobekuntzak:
Kosturik gabe, lizitatzailleek apalategien funtzionamendua eta erabilgarritasuna hobetzeko osagarriak proposatu ahalko dituzte, horietan jartzeko objektuen izaera kontuan hartuta. Zehazki, hobekuntzak preskripzio teknikoen orriaren 11. klausulan deskribatutako puntuei buruzkoak izan ahalko dira.

1. puntuaren (memoria teknikoa) paperezko hedadura **ezingo da 40 orri** (DIN A4) **baino gehiagokoa izan**, alde bakarretik idatzita eta gutxienez 11 gorputzeko letrarekin.

Gainera, gehienez 4 plano aurkeztu ahalko dira, DIN A4an tolestea ahalbidetzen duen formatuan, alde bakarretik idatzita.

2. ZERBITZU TEKNIKO ETA MANTENTZE-PLANA

Lizitatzailleek bermearen epean sor daitezkeen gorabeheren atentziorako duten salmentaren osteko zerbitzu teknikoa deskribatuko dute, baita mantentze-plana ere (ezaugarriak, zerbitzua emateko modua, piezen hornidura, sartzen diren azalpenak eta abar).

2. puntuaren paperezko hedadura **ezingo da 10 orri (DIN A4) baino gehiagokoa izan**, alde bakarretik idatzita eta gutxienez 11 gorputzeko letrarekin.

3. LANAREN PLANGINTZA

Lizitatzailleek hornidura-prozedura eta inplikaturako eragileak deskribatuko dituzte, modu sekuentzialean, eta, gutxienez, alderdi hauek kontuan hartu beharko dituzte:

- Betearazpen-proiektua egiteko fasea, dauden errailak erabiltzeko modua berariaz aipatuz
- Fabrikatzea
- Obraratzea
- Erremateak
- Harrera

3. puntuaren paperezko hedadura **ezingo da 10 orri (DIN A4) baino gehiagokoa izan**, alde bakarretik idatzita eta gutxienez 11 gorputzeko letrarekin.

4. KUDEAKETARAKO SISTEMA INFORMATIKOA

Lizitatzailleek apalategi trinko mugikorretan jarritako edukia kudeatzeko eskainitako sistema informatikoa deskribatuko dute, eta tresna hori pertsonalizatzeko aukerari buruzko informazioa sartuko dute.

4. puntuaren paperezko hedadura **ezingo da 10 orri (DIN A4) baino gehiagokoa izan**, alde bakarretik idatzita eta gutxienez 11 gorputzeko letrarekin.

Lizitatzailleek kontu berezia izan behar dute gutun-azal honetan jaso beharreko dokumentazioa prestatzeko orduan; **bete egin behar dituzte edukiari, egiturari eta formatuari dagokienez emandako argibideak.**

Printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak ez dira onartuko, eta prozeduratik baztertuta geldituko dira.

2. gutun-azalean ezingo da, inola ere, 3. gutun-azaleko edukia ezagutzea ahalbidetuko duen informaziorik sartu; 3. Gutun-azalaren izena hauxe da: "Proposamen ekonomikoa, entregatzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko epea eta bermea". 2. gutun-azalean informazio hori ageri bada, lizitatzaillea lizitaziotik kanporatuko da.

3. gutun-azala: «PROPOSAMEN EKONOMIKOA, ENTREGATZEKO, INSTALATZEKO ETA MARTXAN JARTZEKO EPEA ETA BERMEA»

Proposamen ekonomikoa plegu honen **V. eranskinean** atxikitako eredura doitu da.

Gainera, lizitatzailleek paperean aurkeztu beharko dute, informatzeko helburuarekin, aurrekontu zehatz eta zehatua (atxikitako EXCEL fitxategiari jarraikiz), eta, han, unitate bakoitzaren unitateko prezioa adierazi behar dute.

Halaber, aipatutako **V. eranskinak** hauek bilduko ditu: entregatzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko epea, baita horniduraren berme-epea ere. Edonola ere, epe horiek plegu honen 5. eta 26. klausuletan ezarritako epeak errespetatu beharko dituzte.

Gainera, **kronograma** bat sartuko da (**DIN A3 formatua, gutxienez 9 gorputzeko letrarekin**), eta, han, kontratua formalizatzen den mementotik hornidura martxan jarri arte egingo diren jarduerak adieraziko dira. Kronograma hori koherentea izan beharko da 3. gutun-azalean eskainitako entregatzeko epearekin.

12.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio-irizpideak, ponderazio egokiarekin adierazita, honako hauek izango dira:

A) Proposamen teknikoa

Gehienez 50 puntu.

- **Ezaugarri teknikoak, funtzionalak eta diseinuarekin lotutakoak:**
Gehienez 30 puntu

Honako puntu hauek balioetsiko dira:

- a. Horniduraren kalitatea, sendotasunari, material osagaiei eta haien akaberari dagokienez, baita hornitutako iraunkortasunari eta gaitasunari dagokienez ere.
Gehienez 10 puntu
- b. Ondoriozko espazioaren funtzionaltasuna, baita hornidura bera, ergonomia, diseinua eta estetika ere.
Gehienez 10 puntu
- c. Ingurugiroari lotutako alderdiak: Balioetsiko da eskainitako horniduren ekoizpenak ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena izatea. Halaber, energia-aurrezpenerako neurriak eta sistemak aztertuko dira, baita hauek ere: materialen birziklapen-prozedurak, hondakinen sorrera eta kudeaketa,

birziklatutako edo berrerabilitako materialen erabilera, material ekologikoen erabilera eta abar.

Gehienez 5 puntu

d. Proposatutako hobekuntzen egokitasuna eta bideragarritasuna.

Gehienez 5 puntu

- **Zerbitzu teknikoa eta mantentze-plana:**

Gehienez 10 puntu

Proposatutako zerbitzu teknikoaren bideragarritasuna, egokitasuna eta koherentzia balioetsiko dira, baita eskaintako mantentze-plana ere.

- **Lanaren plangintza:**

Gehienez 5 puntu

Positiboki balioetsiko dira dauden errailetan esku-hartzerik eskatzen ez duten ezarpenak edo errailetan gutxieneko esku-hartzea eskatzen duten ezarpenak. Halaber, eskaintako lanen planifikazioaren koherentzia eta bideragarritasuna balioetsiko dira.

- **Kudeaketarako sistema informatikoa:**

Gehienez 5 puntu

Apalategi trinko mugikorretan jarritako edukia kudeatzeko eskaintako sistema informatikoaren egokitasuna balioetsiko da, baita tresna hori pertsonalizatzeko aukera ere.

Proposamen teknikoan gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten eskaintzak lizitaziotik kanpo geldituko dira.

B) Proposamen ekonomikoa, entregatzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko epea eta berme-epea
Gehienez 50 puntu

B.1) Eskaintza ekonomikoa: 30 puntu

Puntuak honela banatuko dira:

$$P = 30 \times \frac{\text{gutxieneko eskaintza}}{\text{Lizitatuzailearen eskaintza}}$$

Han:

P = baloratutako lizitzaileak lortutako puntuazioa.

Gutxieneko eskaintza = onartutako eskaintza txikienaren zenbatekoa.

Lizitzailearen eskaintza = baloratutako eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

Lizitazioaren aurrekontu handiena gainditzen ez duten eskaintzek zero (0) puntu jasoko dituzte atal honetan.

Neurriz kanpokoa edo ezohikoa izan daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, proposamena aurkeztu duen eskaintzaileari entzunaldia egin beharko zaio, eskaintzaren balioespena justifikatzeko eta horren baldintzak zehazteko.

Ondore horietarako, neurrigabetzat edo ezohikotzat jo ahal izango da proposamen guztien batezbesteko aritmetikoa baino 20 portzentaje-unitate txikiagoa den eskaintza.

B.2) Entregatu, jarri eta abian jartzeko epea: 15 puntu

Honela balioetsiko da: plegu honen 5. klausulan ezarritako epe handienaren balioidea den epea eskaintzen duenak 0 puntu lortuko ditu eta gainerakoei formula hau aplikatuko zaie:

$$\text{Ptn} = \frac{(\text{Al} - \text{En})}{(\text{Al} - \text{El})} \times \text{pte.}$$

(Al= lizitazioaren epe handiena; pte= gehienezko puntuazioa; El= eskaintako epe txikiena; En= lizitzaile bakoitzaren eskaintzaren epea; Ptn= lizitzaile bakoitzak lortutako puntuak).

B.3) Berme-epea: 5 puntu

Honela balioetsiko da: plegu honen 26. klausulan ezarritako epe txikienaren balioidea den epea eskaintzen duenak 0 puntu lortuko ditu eta gainerakoei formula hau aplikatuko zaie:

$$\text{Ptn} = \frac{(\text{En} - \text{Al})}{(\text{El} - \text{Al})} \times \text{pte.}$$

(Al= bermearen epe txikiena; pte= gehienezko puntuazioa; El= eskaintako epe altuena; En= lizitzaile bakoitzaren eskaintzaren epea; Ptn= lizitzaile bakoitzak lortutako puntuak).

13.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

Teknikariek, hasteko, garaiz eta forma egokian aurkeztu diren 1. gutun-azaleko (Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena) agiriak aztertuko dituzte, eta horietan konpontzeko moduko akatsak edo hutsuneak ikusiz gero, gehienez ere hiru laneguneko epea emango diote lizitatzailari aipatutako akatsak edo hutsuneak zuzen ditzan. Zuzendu beharreko akatsak edo ez-egiteak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkio eskaintzailari, **II. eranskinean** adierazi duen helbidean eta bitartekoan.

Jakinarazpen eta komunikazio guztietan erabiliko da bide hori, bestelako bide gehigarri batzuk erabiltzeko aukera baztertu gabe.

Dokumentazioa kalifikatu eta, beharrezkoa bada, akatsak edo ez-egiteak zuzendu ondoren, 2. gutun-azala (Proposamen tekniko) irekiko da. Jarraian, teknikariek hori aztertu eta baloratuko dute, agiri honetan ezarritako irizpideei jarraituz, eta hori dokumentu bidez jasoko dute.

Proposamena egin aurretik, behar adina txosten tekniko eskatu ahal izango dituzte teknikariek.

3. gutun-azala (Proposamen ekonomiko eta modu automatikoan ebaluatzeko moduko beste irizpide batzuk) jendaurreko ekitaldian zabalduko da, FILMATEGIAREN kontratzaile-profilean adierazitako tokian, datan eta orduan. Jendaurreko ekitaldia hastean, proposamen teknikoen balioespenaren emaitza jakinaraziko zaie bertaratutakoei.

Teknikariek proposamenak irakurri ondoren, APKLAOren 84. artikuluan ezarritako kausaren batean sartuta daudenak baztertuko dituzte.

3. gutun-azala irekitzeko ekitaldia bukatzen denean, horiek aztertu eta baloratuko dira.

Teknikariek aurkeztutako proposamenen zerrenda helaraziko diote Kontratazio Organoari, 12. klausulan ezarritako balioespen-irizpideen arabera beheranzko ordenan sailkatuta, eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza zein den adieraziko du.

Proposamena egin aurretik, behar adina txosten tekniko eskatu ahal izango ditu FILMATEGIAK.

Teknikariek alde ekonomikotik eskaintzarik onuragarriena identifikatzeak ez du sortzen ezein eskubiderik lizitatzailaren alde, FILMATEGIAREN aurrean.

14.- KONTRATUA ESLEITZEA

Arau orokor gisa, kontratazio-organoak teknikarien proposamenari jarraitu beharko dio adjudikazioduna hautatzeko. Hala egiten ez badu, kontratazio-organoak arrazoitu egin beharko du proposamenetik aldentzeko hartutako erabakia, eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena egin beharko du.

Kontratazio-organoak honako agiri hauek aurkez ditzala eskatuko dio ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen eskaintzaileari, eta hurrengo egunetik kontaktzen hasi eta hamar egun balioduneko epean, honako agiri hauek:

a) FILMATEGIAREKIN kontratatzeko eta plegu honen 10. klausulan eskatutako gaitasunarekin eta kaudimenarekin lotutako baldintzak betetzearen egiaztagiriak, jarraian adieraziko den moduan. Proposamena aldi baterako batasun gisa parte hartu nahi duten enpresariak egiten badute, dokumentazio horrek batasuna osatuko duten enpresa guztiak aipatu behar ditu:

1. Enpresaburuaren nortasunaren eta jarduteko gaitasunaren egiaztagiriak eta, hala badagokio, haren ordezkariarenak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuaren jarduteko gaitasuna frogatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira: eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio-egintza, eta bertan, haien jardura arautzen duten arauak, dagokien erregistro publikoan inskribatuak, kasuan kasuko pertsona juridiko-motaren arabera.

- Europar Batasuneko estatuetakoen enpresaburu ez-espainiarren jarduteko gaitasuna frogatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira: ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa, edo zinpeko aitopen edo ziurtagiri bat, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

- Gainerako enpresaburu atzeritarren jarduteko gaitasuna frogatzeko, berriz, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia-misio iraunkorrak emandako txostena edo enpresak egoitza duen lurralde-esparruko kontsuletzeko bulegoak emandako txostena. Txosten horren bitartez, justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak, funtsean, modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango Administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, eta, halaber, SPKLTBren 3. artikuluan adierazitako enpresaren sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuaren jarduteko gaitasuna frogatzeko, nortasun agiri nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztu beharko da.

- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztu beharko dute, bai eta horretarako behar besteko ahalordea ere. Beste baten izenean diharduena pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan jasota egon beharko du, Merkataritza Erregistroaren araudiaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera hala eskatzen bada, edo hala badagokio, kasuan kasuko Erregistro Publikoan, pertsona juridiko-motaren arabera.

Lizitatuak eskatutako agirien jatorrizkoak edo kopiak behar bezala egiaztatuta edo legezkatuta aurkeztu ahal izango dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatuak eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden

lizitzaileek erregistroaren ardura duen letraduak emandako indarreko inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkez dezakete, 1. zenbakian aipatutako dokumentazioaren orde. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta haren bidez, dokumentuan azaldutako egoerak ez direla aldatu adieraziko da.

2. Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotearen egiaztagiria.

3. **III. Eranskinaren** eredura doitutako erantzukizunpeko adierazpena, lizitzaileak SPKLTBren 60.1 artikuluan ezarritako kontratatzeke debekurik ez duela dioena.

4. Enpresariak beharrezko kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala dituela egiaztatzen duten agiriak, 10. klausulan aurreikusitakoaren arabera.

Honako bitarteko hauen bidez egiaztatuko dira enpresariaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala:

- Urteko negozio-bolumenari buruzko aitorpena, kontratuaren xedearen esparrukoa. Han, egiaztatu behar da azken hiru ekitaldietako handiengan gutxienez kontratuaren balio estimatuaren bikoitzaren urteko bolumen-negozioa izatea.
- Azken bost urteetan burututako hornidura nagusien zerrenda. Honako hauek jaso beharko dira: zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak.
- Lizitzailea sistema hauetan dagoela egiaztatzeke agiriak:
 - ISO 9001 kalitatea bermatzeko sistemaren ziurtagiria edo antzekoren bat.
 - ISO 14.001 ingurumena kudeatzeko sistemaren ziurtagiria edo antzekoren bat.

5. Kontratua betetzeko hitzemandako giza baliabideak benetan edukitzearen egiaztagiria.

Kontratua gauzatzeko atxikitako hitzemandako giza baliabideei dagokienez, hautatutako lizitzaileak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Kontratua gauzatzeko atxikitako giza baliabideen izenezko identifikazioa, hauek barne hartzen dituzten curriculum vitaeko fitxekin batera:
 - Titulazio akademiko ofiziala.
 - Helburuko esparruan duen esperientzia.
- Giza baliabide horiek guztiak benetan dituela egiaztatzen duen agiria.

FILMATEGIAK eskubidea du egokitzat jotzen dituen egiaztatze-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzeko, lizitatzailleek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko helburuarekin.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki (aurrerantzean, DBLO) eta aipatutako giza baliabideei buruzko dokumentazioan jasotako informazio mota kontuan hartuta, zera ohartarazten dugu: (i) informazio hori jasotzeak eta erabiltzeak datu pertsonalak tratatzea dakar, hautatutako lizitatzaillearen eskutik, tratamenduaren erantzule gisa; eta (ii) informazioa FILMATEGIARI emateak, proposamenaren parte gisa, datuen lagapena dakar, aipatutako lizitatzaillearen eskutik, lagatzaile gisa.

Ondore horietarako, hautatutako lizitatzailleak harentzat DBLOean xedatutakotik sortutako betebeharrak bete beharko ditu, aurreko lerrokadan aipatutako datuen tratamenduari eta lagapenari dagokienez. Zehazki, tratamenduaren erantzule gisa bestelako obligazioak ere edukitzea eragotzi gabe, hautatutako lizitatzailleak DBLOko 11. artikuluan jasotakoa bete beharko du, eta bera erantzule bakar izanda, interesdunen onarpen informatua lortu beharko du, aurretik aipatutako datuen lagapena egin ahal izateko. Alderdi hori behar bezala frogatu beharko dute horiek FILMATEGIAREN aurrean, hala eskatzen zaienean.

6. Hala badagokio, aitopen-adierazpena, kasu honetan: eskatutako kaudimena egiaztatzeko eta/edo baliabide jakin batzuk jartzeko konpromisoa betetzeko, lizitatzailleak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu, **IV. eranskinaren** ereduari jarraituz.

7. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartea eratu izana egiaztatzen duen eskritura publikoa. Aldi baterako elkarte horrek ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko du, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalmena izango duena, kontratua azkendu arte.

Oharra: FILMATEGIAK eskubidea du egokitzat jotzen dituen egiaztatze-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzeko, lizitatzailleek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko helburuarekin.

Oharra: FILMATEGIAK aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo hutsuneak ikusiz gero, hiru egun balioduneko gehieneko epea emango du horiek zuzentzeko.

Oharra: Atzerriko enpresek gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dituzte aurkeztu beharreko dokumentuak.

- b) Plegu honen 9. klausulan ezarritako behin betiko bermea eratu izana egiaztatzen duen agiria.
- c) Lizitazio-iragarkien gastuak ordaindu izana egiaztatzen duen agiria.

d) Aseguru polizaren kopia, plegu honen 24. klausulan aurreikusitakoaren arabera.

Eskakizuna adierazitako epean betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzailleak eskaintza kendu duela. Kasu horretan, hurrengo lizitatzailleari eskatuko zaio dokumentazio bera, eskaintzak sailkatu diren ordenari jarraituz.

Aipatutako agiriak, egoki zuzenduta, behar izanez gero, jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan, eta proposamenak ireki ondoko egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko gehieneko epean, kontratazio-organoak kontratua esleituko du.

Kontratazio Organoak ebazpen arrazoitu batean jasoko du adjudikazio-erabakia, eta lizitatzaillei jakinaraziko die, plegu honen **II. eranskinean** atxikita doan ereduan adierazitako bitartekoaren bidez, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

15.- KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatu gisa formalizatuko da, hamabost egun balioduneko gehieneko epean, lizitatzailleek eta adjudikaziodunak adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Adjudikaziodunak kontratuaren eskritura publikoa egitea eskatu ahal izango du, halere. Kasu horretan, berak ordaindu beharko ditu formalizatzeko-gastuak.

Kontratastari egotz dakizkiokeen kausengatik kontratua ez bada adierazitako epearen barruan formalizatu, FILMATEGIAK hurrengo lizitatzailleari agiri honen 14. klausulan eskatutako agiriak eskatu ahal izango dizkio, eta hamar egun balioduneko epea emango du horiek aurkezteko.

16.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du. Arduradun horrek, kontratuak esleitzen dizkion eskumenen esparruan, haren gauzatzea ikuskatzeko, erabakiak hartzeko eta beharrezko jarraibideak agintzeko ardura izango du, hitzartutako prestazioak behar bezala ematen direla bermatzeko.

Adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu kontratuaren arduradunaren jarraibideak.

Ondore horietarako, gorabeheren akta egiteko arduraduna izango da, eta kontratua gauzatzeko sumatutako ez-betetze guztiak salatuko ditu. Halaber, betearazpen akastunagatik egokitu daitezkeen zigorrak ezarriko ditu, plegu honen 20. klausulari jarraikiz.

EUSKAL FILMATEGIAK edozein mementotan izendatu ahalko du kontratuaren arduradun berri bat, aldez aurretik adjudikaziodunari jakinarazita.

17.- KONTRATUA BETEARAZTEA

Kontratua honako baldintza hauei jarraiki egikarituko da:

- Kontratastak arriskua bere gain hartuz jardungo du kontratua gauzaterakoan.
- Kontratua baldintzen arabera gauzatuko da, klausula ekonomiko-administratiboen plegua, preskripzio teknikoen plegua, kontratastak aurkeztutako eskaintza eta EUSKAL FILMATEGIAK edo, hala badagokio, kontratuaren arduradunak agindutako jarraibideak aintzat hartuta.
- EUSKAL FILMATEGIAK edozein mementotan kontrolatu, egiaztatu eta ikuskatu ahalko du, edozein bitartekoren bidez, kontratu-betebeharrak modu egokian betetzen direla eta kontratu-prestazioak modu egokian betearazten direla.

Esleipendunak ezingo ditu eragotzi EUSKAL FILMATEGIAK egindako ikuskatze eta kontrol lanak.

- Kontratuak honako hauek bete beharko ditu: indarreko lege-xedapen, erregelamendu-xedapen eta ohiko xedapenak eta lanaren, gizarte-segurantzaren, segurtasunaren eta laneko osasunaren arloetan aplikatu beharrekoak.
- Langile guztiak enpresa kontratistaren mendean egongo dira eskusiboki, hura bere enpresaburu-izaerari dagozkion eskubideen eta betebeharren jabe dela, eta EUSKAL FILMATEGIARI ezingo zaio ezer erreklamatu, aipatutako lan-harremani edo gainerako betebeharrei dagokienez.

Zerbitzua eskaintzen duten langileekin –enpresa kontratistaren berezko langileekin nahiz aldi batez azpikontrataturakoeekin– lotura duten istripuen edo erreklamazioen – erreklamazio judizialen edo judizioz kanpokoan– erantzule bakarra enpresa kontratista izango da. Hortaz, EUSKAL FILMATEGIAK ez du bere gain hartuko enpresa kontratistak zuzenean edo zeharka hartutako lan-erantzukizunik, Gizarte Segurantzarekiko erantzukizunik edo zerga-erantzukizunik. Lehen multzo horren barruan izango dira, bidenabar, laneko osasun, higiene eta segurtasunari buruzko erantzukizunak. Era beran, enpresa kontratistak ez beste inork bere gain hartuko ditu zerbitzua eskaintzeagatik suertatutako ezbeharrengatik erantzukizunak.

- Kontratuaren xedeak ez du barne hartuko ez berekin ekarriko EUSKAL FILMATEGIAK datu pertsonalak erabiltzea.

Horrela, kontratua indarrean dagoenean, enpresa adjudikaziodunak jardueren esparruan datu pertsonalen edozein tratamendu egiten badu, ulertuko da bere aldetik eta berak erabakita egin duela, tratamendu horren arduradun gisa. Edonola ere,

beregain hartuko du tratamendu horren ondorioz DBLOn eta garapen-araudian ezarritakotik sortutako betebeharrak betetzeko ardura.

18.- FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira kontratistaren betebeharrak:

- Kontratuaren betearazpena, horretan zehaztutakoari jarraikiz, baita plegu honetan eta eskaintzan zehaztutakoari ere.
- Eskaintako entregatzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko epea betetzea.
- Eskaintako berme-epea betetzea.
- Bere eskaintzan hitzemandako giza baliabideak jartzea kontratua gauzatzeko.
- Kontratua betearazteko beharrezkoak diren baliabide material guztiak kontratuaren betearazpenari atxikitzea.
- Harremanetarako solaskide bakar bat izendatzea, koordinazio- eta laguntza-funtzioak egingo dituena. Solaskide horrek behar besteko gaitasuna izango du hornidura zuzen egiteko beharrezko neurriak hartzeko.
- Eskaintzaren edukia bildu eta garatuko duen betearazpen-proiektuaren aurkezpena, baita FILMATEGIAK egokitzat jotako jarraibideak ere, horren edukia ikusita. Proiektua gehienez astebeteko epean aurkeztu beharko da kontratua formalizatzen denetik. Edonola ere, beharrezkoa izango da FILMATEGIAK dokumentu hau berariaz onestea elementu guztiak ekoizten eta/edo hornitzen eta instalatzen hasteko.
- Bere jarduera egiteko beharrezkoak dituen lizentziak eta baimenak eskuratzea, bere kontura.
- Kontratuaren arduradunak eta EUSKAL FILMATEGIKO teknikariek emandako jarraibideak betetzea.
- Kontratuaren xedea burutzeko sor daitezkeen gastuak ordaintzea, zergaren arlokoak, tasak eta kargak barne, indarreko xedapenei jarraikiz.
- Lanaren alorrean eta Gizarte Segurantzarenean indarrean dauden xedapenak betetzea, kontratatutako horniduraren prestazioan erabiliko dituen langile guztiei dagokienez.
- Konfidentzialtasun-eginbearra betetzea, plegu honen 19. klausulari jarraikiz.
- Behin betiko bermea eratzea eta mantentzea, plegu honen 9. klausulari jarraikiz.

- Kontratuaren xedearen prestazioa, memento bakoitzean indarrean dagoen sektoreko araudian xedatutakoari jarraikiz.

Klausula honetan ezarritako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharraren izaera izango dute SPKLTBren 223.f) artikuluan ezarritako ondoretarako; hortaz, horiek ez betetzea kontratua indargabetzeko arrazoia izango da, EUSKAL FILMATEGIAK hala nahi badu.

19.- KONFIDENTZIALTASUNA

Esleipenaren gaineko publizitateari buruz eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari buruz agiri honetan xedatutakoari kalterik egin gabe, Kontratazio Organoak ezingo du zabaldu lizitatzailerek emandako eta haiek konfidentzialtzat jotako informaziorik; izaera horrek sekretu teknikoei eta komertzialei eragiten die bereziki.

Kontratistak, bere aldetik, zorrotz errespetatu beharko du kontratuaren gauzapenagatik eskuratzen duen informazioaren izaera konfidentziala, kontratuan halako izaera eman bazaio, edo berezko izaeraren ondorioz informazio horrek era horretako tratamendua jaso behar badu.

Bereziki, honako hauek joko dira konfidentzialtzat, eta ezingo dira argitaratu edo zabaldu: kontratuaren gauzapena dela medio kontratistari edozein euskarritan ematen zaizkion informazioak, agiriak, artxiboak edo espezifikazioak.

Konfidentzialtasun-betebehar hori beti egongo da indarrean.

20.- ZIGORRAK

Berari egotz dakizkiokeen kausengatik, kontratistak eskainitako entregatzeko epeak atzeratu baditu, kontratatutako prestazioak gaizki eman baditu edo kontratuan jasotako beste edozein baldintza bete ez badu, EUSKAL FILMATEGIAK bi aukera hauetako bat hauta dezake, bata zein bestea: kontratua indargabetzea, baldintzen agiri honetako 26. klausulan ezarritakoaren arabera, edo kontratua gauzatzen jarraitzea. Azken kasu horretan, EUSKAL FILMATEGIAREN alde sortuko dira, modu metagarrian, betiere kalte-galerengatik dagozkion kalte-ordainez gainera, honako zigor hauek:

- Entregatzeko, hornidura instalatzeko eta martxan jartzeko epea atzeratzen bada, 100 euroko zigorra atzeratutako egun bakoitzeko.
- Zerbitzuak gaizki emanez gero edo kontratu-baldintzak bete ezean, 100 euroko zigorrak sortuko dira eguneko. Zigor horiek aplikatuko zaizkie akatsa zuzentzeko beharrezkoak izan diren egunen guztizkoari edo ez-betetzeak iraun duen egunen guztizkoari, hurrenez hurren.

Kontratua gauzatzen jarraitzea aukeratuta ere, kontratuaren ez-betetzeak dirauen bitartean EUSKAL FILMATEGIAK edozein unetan aukera dezake hura suntsiaraztea, lehen aipatu diren ondorioekin.

Zigorrek gauzatzeko kontratistari ordainketa total edo partzial gisa ordaindu beharreko zenbatekoak edo 9. klausulan ezarritakoari jarraikiz eraturako bermea kenduko zaizkio; hori dagokion erreklamazioaren xedea izango da, horiek gainditzen dituen zenbatekoan.

21.- KONTRATUAREN LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuak sortzen dituen eskubide eta betebeharrak ez dira lagako.

Kontratuko prestazioak azpikontratatu ahal izateko, ezinbestekoa da aurretik FILMATEGIAK idatzizko berariazko baimena ematea; horrez gain, azpikontratatistak lege-betebeharrak eta plegu honetan FILMATEGIAREKIN kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatu beharko ditu eta ez du kontratatzeke debekurik izan beharko. Hori guztia, azpikontratatu beharreko prestazioari edo prestazioei dagokienez.

22.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua burutu ondoren, kontratazio-organoak SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan baizik ezin dezake aldatu kontratua.

23.- ERANTZUKIZUNA

Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren lanen ondorioz hirugarrenei sortutako kalte-galeren ordaina eman beharko du adjudikaziodunak.

Kontratista izango da egindako lanen kalitate teknikoaren, eta emandako prestazioen eta horniduren erantzule, baita kontratuaren gauzapenean gerta daitezkeen ahazteek, akatsek eta metodo desegokiak EUSKAL FILMATEGIARI edota hirugarrenei eragin diezazkieketen ondorioen erantzule ere.

24.- ASEGURUAK

Lanak gauzatzeko garaian sortutako kalte guztiak adjudikaziodunaren ardura izango dira, edozer dela ere haien izaera edota bolumena.

Haren ardurapeko arriskuak estaltzeko, adjudikaziodunak azpian adierazitako aseguru-kontratuak kontratatuko ditu eta adjudikazio-aldian eta balizko luzapen eta bermeetan

mantenduko ditu. Horiek adibide gisa eta modu ez mugatzailean aipatu dira, helburua estaldura eraginkorra lortzea baita. Hauek dira aseguru-kontratuak:

- ✚ **Langile guztien gaixotasun- eta istripu aseguru.** Horrek kontratuari lotutako langile guztiei eta kontratistak kontratatutako azpikontratatistaren langileei eragingo die, legeari edo sektoreko hitzarmenei edo hitzarmen partikularrei jarraikiz.
- ✚ **Ibilgailuen nahitaezko aseguru.** Ibilgailu horiek adjudikaziodunarenak edo hark kontratatutakoak izan daitezke, betiere kontratuaren xedearen lanetan esku hartzen badute. Aseguruak erantzukizun zibilaren arriskua (nahitaezkoa eta borondatezkoa) estali behar ditu kontrata daitekeen mugaraino.
- ✚ **Erantzukizun zibilaren** bermea, alderdi hauek bilduko dituena: OROKORRA/USTIAKETA (albokoak eta/edo gidaritza, subsidiarioa barne hartuko dituen), LAN-ISTRIPUAK, (PATRONALA ETA GURUTZATUA), LEHENDIK ZEUDENAK, ISTRIPUZKO KUTSADURA ETA LANEN OSTEKOAK (24 hilabete). Halaber, defentsak eta fidantza zibilak eta kriminalak bermatu behar ditu, FILMATEGIA ASEGURATU gisa sartuz eta kontratuaren xedearen lanetan esku hartzen duten pertsonen HIRUGARRENEN IZAERA mantenduz. Gainera, aseguru-entitateek FILMATEGIAREN aurka balia ditzaketen subrogazio eta ekintza eskubideei uko egin behar diete, hirugarrenei egin dakizkiekeen kalteen aurrean, kontratu honen xedearen lanen eraginez, modu zuzenean ala zeharka, ekintzagatik edo ez-egiteagatik, baita kontratu honen xedearen prestazioen akatsen eta urritasunen eraginez ere.

Bermatu beharreko gutxieneko oinarritzko zenbatekoak hauek dira:

- Erantzukizun zibil orokorra: 1.000.000 €
 - Erantzukizun zibil patronala: 1.000.000 €
 - Erantzukizun zibil gurutzatua: 1.000.000 €
 - Istripuzko kutsaduraren erantzukizun zibila: 1.000.000 €
 - Lanen osteko erantzukizun zibila (24 hilabete): 1.000.000 €
 - Ez dago azpimugarik, patronal eta gurutzaturako soilik, eta kasu horretan gutxienekoa 300.000 € izango da.
 - Defentsa eta fidantza zibil eta penalak: Barne.
-
- ✚ **Muntaketako arrisku orotarako poliza;** egindako muntaketan, egiten ari direnen eta lehendik dauden ondasunen kalteak estali beharko ditu, eta gutxienez ondorengoak sartuko dira:
 - Suteak, tximistak, lapurretak, espolioazioak, leherketak, kolpeak, trebetasun-falta, arduragabekeria, bandalismoa, asmo txarreko jokabideak, arrisku naturalak, eta gainerako arrisku guztiak.
 - Diseinu-akatsaren ondorioa, fabrikatzailearen arriskua.
 - Ordu osagarriek, hondakinak ateratzeak, eraisteez, agintaritzak hartutako neurriek eta abarrek eragindako gastuak, 50.000 €-ko gutxieneko mugarekin
 - Lehendik dauden ondasunei egindako kalteak, lehen arriskuko 80.000 €-ko gutxieneko mugarekin

- Greba, matxinada eta terrorismoa, 80.000 €-ko gutxienerako mugarekin
- Zerbitzu-sari profesionalak, 30.000 €-ko gutxienerako mugarekin
- Eraikuntza-taldeak
- Egingandako muntaketaren mantentze zabalak

Aseguratutako kopurua BEZean sartutako esleipenaren balioa izango da.

Aseguruak muntatze-aldian gertatzen diren galera eta kalte guztiak estali behar ditu, bai eta kontratuan ezarritakoa behar bezala betetzeko aldi horretan edo hurrengo batzuetan egiten diren lanek sortzen dituztenak ere.

FILMATEGIA aseguru gehigarri gisa ageri behar da, baita kontratista, azpikontratista eta obraren gainerako esku-hartzaile gisa ere.

Aipatutako aseguru-kontratuei dagozkien sariak kontratistak ordaindu beharko ditu, eta ulertuko da, ondore guztietarako, horren zenbatekoak eragina izan duela kontratuaren prezioan.

Halaber, aseguru-kontratu hauen indarraldian ezbeharririk gertatuko balitz, kontratistak ordaindu beharko ditu horietan ezarritako mota guztietako frankiziaz.

Filmategiak edozein mementotan eskatu ahalko dio adjudikaziodunari aseguruaren kontratazioa, ordainketa, edukia eta indarraldia egiaztatzeko, eta adjudikaziodunak, hala badagokio, polizen eta ordainagiriaren kopia osoa aurkeztu beharko ditu.

Klausula honetan ezarritako konpromisoei jarraikiz kontratatutako aseguruak ez dituzte mugatuko adjudikaziodunari kontratu honen arabera dagozkion betebeharrak eta erantzukizunak. Hortaz, adjudikazioduna eskatutako mugak eta bermeak gainditzeagatik edo laburtzeagatik egotz dakizkiokeen galeren edo erantzukizunen erantzulea izango da, aseguruaren frankizien zenbatekoan.

25.- KONTRATUA ETETEA

EUSKAL FILMATEGIAK kontratua etetea erabakiko balu, edo etete hori SPKLTBren 216. artikuluko 5. atalean xedatutakoa aplikatzeagatik egiten bada (kasu honetan, berariaz aplikatzea da), dagokion akta egingo da. Idatzi horretan, etetea eragin duten arrazoiak eta kontratuaren egoera adieraziko dira.

Etetea erabaki eta gero, benetan jasandako kalte eta galerak ordaindu behar dizkio esleipendunari EUSKAL FILMATEGIAK.

26.- KONTRATUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratista behartuta egongo da hornidura eskaintzan adierazitako epean eta plegu honen 5. klausulan ezarritako lekuan entregatu eta instalatzera.

Kasu honetan ulertuko da esleipendunak kontratua bete duela: hark kontratuko prestazio osoa kontratuan ezarritako baldintzetan eta FILMATEGIAREN gustura eman dituen.

Hala ere, **altzarien ekipamendua osatuko duten elementu guztiak entregatu, instalatu eta martxan jartzeko lanak bukatzen direnetik hilabete bateko epean, horren harrera-ekitaldia egingo da, eta horretarako onarpen-testa sinatuko da.** Aipatutako onarpen-testean agiri bat sinatuko da, eta horretan preskripzio teknikoaren orrian ezarritako espezifikazioak edo adjudikaziodunak eskaintako osagarriak bete direla baliozkotuko da.

Hornitutako ondasuna ez baldin badago hartzeko moduan, hala adieraziko da harrera-aktan, eta kontratistari zehatz-zehatz adierazi beharko zaio zer egin behar duen, ikusitako hutsak zuzentzeko edo horniketa itundutakoaren arabera egiteko.

Horrek ez dio kalte egingo 20. klausulan aurreikusitakoari. Hala, FILMATEGIAK dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, entrega-epean berandutzeagatik horniketa horrek bere onarpena jasotzen ez duen bitartean.

FILMATEGIAK erabakiko du kontratistak emandako prestazioa bat ote datorren kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako aginduekin, eta, hala badagokio, eskatuko dio kontratistari kontratatutako prestazioak egiteko eta prestazioak jasotzean detektatutako akatsak ongitzeko.

2 urteko gutxieneko bermealdia ezarri da, onarpen-testa sinatzen denetik zenbatzen hasita, edo, hala badagokio, adjudikaziodunak eskaintako eperik handiena.

Baldin eta, bermealdian, egiaztatzen bada hornitutako ondasunean badela akatsik edo gabeziarik, Kontratazio Organoak eskubidea izango du kontratistari horiek ordeztzeko edo konpontzeko exijitzeko.

Baldin eta FILMATEGIAK, bermealdian, hornitutako horretan ikusi dituen eta kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, hornitutako ondasunari lortu nahi den helbururako egokia ez dela irizten badio, eta ondasun hori ordezteko edo konpontzea ustez nahikoa ez bada jarritako helburua lortzeko, ondasuna atzera bota eta kontratistaren ardurapean utz dezake, aipatutako bermealdia agortu aurretik; horrela, ordaintzeko betebeharretik aske geldituko da, edo kasuan kasu, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

27.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiarazteko kausak honako hauek izango dira: SPKLTBren 223. artikularen a) –85. artikuluan xedatutakoa baztertu gabe–, b), d), f), g) eta h) idatz-zatietan

aurreikusitakoak, eta oro har, kontratu-betebeharren edozein urraketa, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Kontratua suntsiarazteko klausula honetan aurreikusitako edozein kasutan, hura automatikoki gertatuko da, eta nahikoa izango da EUSKAL FILMATEGIAK bere erabakiaren jakinarazpen fidagarria egitea kontratistari.

Jakinarazpen hori jasotakoan, kontratista behartuta egongo da EUSKAL FILMATEGIARI berehala kontratuaren ondorioz egindako edo sortutako agiri guztiak ematera eta horiek haren esku uztera; horrela, EUSKAL FILMATEGIA izango da agiri horien guztien jabea. Halaber, EUSKAL FILMATEGIAK emandako material guztia bueltatu beharko du, kontserbazio-baldintza ezin hobeetan.

Helburu horretarako, kontratuaren gauzatze egoeraren akta bat idatziko da, eta, bertan, garbi zehaztuko dira EUSKAL FILMATEGIAK entregatutzat eta amaitutzat onartzen dituen agiriak eta lanak, eta ez-entregatutzat edo ez-jasotzat jotzen direnak, hala nola ez-jasotze horren arrazoiak. Horrela, EUSKAL FILMATEGIAK kontratua gauzatzen jarraitu ahalko du, hark bakarrik edo hirugarren baten bidez.

Hori guztia, jakina, ondoren egingo den dagokion likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe, jarraian xedatutakoaren arabera egingo baita aipatutako likidazioa.

Klausula honetan ezarritako arrazoen ondorioz kontratua suntsiaraztetik sor litezkeen erantzukizun ekonomikoak eta egokiak izan litezkeen beste batzuk likidatuko dira kontratua suntsiarazten denean eta kasuan kasuko dokumentazioa entregatzen denean. Hori ez da eragozpena izango EUSKAL FILMATEGIAK betearazpenarekin jarraitzeko.

Edozein izanda ere kontratua suntsiarazteko arrazoa, benetan egindako lan guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du kontratistak.

Kontratua suntsiarazten bada kontratistari egotz dakioken edozein kausagatik, kontratuaren prezioaren % 15eko zenbatekoa sortuko da EUSKAL FILMATEGIAREN alde, izaera metagarriarekin, betiere bidezkoak diren kalte-ordainez gainera.

Bi zenbatekoak kontratistari ordaindu beharreko prezioari edo 9. klausulan ezarritakoari jarraikiz eratutako bermeari kenduko zaizkio; hori dagokion erreklamazioaren xedea izango da, eta, gaindituz gero, dagokion erreklamazioaren xedea izango da.

28.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua, prestatzeari eta esleitzeari dagokionez, honako hauek arautuko dute: klausula ekonomiko-administratiboen pleguak, preskripzio teknikoaren pleguak eta, horretan aurreikusita ez dagoenari dagokionez, EUSKAL FILMATEGIAREN kontratatzeke barne-jarraibideek eta horretarako SPKLTBan ezarritako arauak (sektore publikoko erakundeek egindako erregulazio harmonizatutakoak ez diren kontratuentzat, hain zuzen, botere adjudikatzailea dutenak eta herri-administrazioarenak ez direnak).

Ondoreei eta iraungipenari dagokienez, kontratua honako hauek arautuko dute: klausula ekonomiko-administratiboen pleguak, preskripzio teknikoen pleguak eta, horretan aurreikusita ez dagoenari dagokionez, zuzenbide pribatuko arauak, kontratua aldatzearekin lotutakoari dagokionez izan ezik; kasu horretan SPKLTBaren I. liburuaren V. tituluari xedatutakoa aplikatuko da.

Gainera, SPKLTB, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, eta APKLAO aplikatuko dira, plegu hau arau-testu horiei berariaz lotuta dagoenean.

29.- JURISDIKZIOA

Jurisdikzio-ordena zibila izango da eskuduna, bi alderdien artean sor litezkeen desadostasunetan, kontratuaren prestaketari, adjudikazioari, ondorioei, betetzeari eta iraungipenari dagokienez.

Kontratu honen interpretazioaren inguruan desadostasunik egongo balitz, aldeek Donostiako epaitegietara joko lukete.

I. ERANSKINA: ABAL EREDUA

[...] erakundeak (*kreditu-erakundearen edo elkarrekiko berme-baltzuaren izen soziala*), [...] IFK duenak, egoitza [...]-(e)n duenak (*jakinarazpenak eta eskaerak egiteko ondorioetarako*), eta haren izenean [...]-(e)n duenak (*ahaldunaren izen-abizenak*), ekintza honetan hitzemandako ahalmen nahikoak dituenak, dokumentu honen behealdean adierazitako ahalordea askiestearen emaitzaren arabera, ABALA eman dio honako pertsona edo erakunde honi: [...] (*abaldunaren izen eta abizenak eta izen soziala*), IFK [...], EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAREN biltegitratzeko altzarien ekipamendua osatuko duten elementu guztiak ekoizteko eta/edo hornitzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko kontratutik sortutako betebeharrei erantzuteko; zenbateko hau izango du: [...] euro (*letraz eta zenbakiz*).

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, administrazio publikoetako kontratuen legearen araudi orokorra onartzen duenak, 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela. Abal hau solidiarioki ematen da betebeharreko nagusiari dagokionez, eskusio-onurari berariaz uko eginez eta EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAK egindako lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoarekin.

Abal hau indarrean egongo da EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAK edo haren izenean horretarako gaituta dagoen norbaitek hori baliogabetzeko edo itzultzeko baimena ematen duen arte.

Tokia eta data [...].

Erakundearen izen soziala. [...].

Ahaldunen sinadura [...].

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

“.....jaunak/andreak,
.....helbidea duenak,
.....NAN zenbakidunak,telefono-zenbakia eta
.....e-maila dituenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun
osoarekin, nire izenean (edo
.....ordezkatuz,
.....helbidea duena, eta
.....NAN edo IFK zenbakia duena [persona fisikoa ala juridikoa izan]),
EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAREN biltegiatze-altzarien ekipamendua osatuko
duten elementu guztien produkzioa eta/edo hornidura, instalazioa eta martxan jartzea
kontratatzeko prozedura irekiaren bidezko lizitazioa arautuko duten klausula ekonomiko-
administratiboen baldintzen agiria eta baldintza teknikoaren agiria ezagututa,

AITORTZEN DU:

Lehenengoa.- Eskaintza hau aurkezteko egunean EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAREKIN kontratatzeke ezarritako lege-baldintza guztiak betetzen dituela, baita klausula ekonomiko-administratiboen baldintzen agirian eskatutako gaitasun- eta kaudimen-betebehar guztiak ere.

(Sartu beharko da eskatutako kaudimena egiaztatzeke eta/edo giza baliabide jakin batzuk jartzeko konpromisoa betetzeko, lizitazioak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu) Hori horrela izanik ere, kaudimena osatzeko eta/edo baliabide jakin batzuk jartzeko gutxieneko konpromisoa betetzeko kaudimen hori eta baliabideak enpresarenarekin integratu nahi baditu ..., hori dagokionean egiaztatuko du, parte hartuko duen lizitazioaren pleguan ezarritako moduan.

Bigarrena.- *(Sartu beharko da enpresa-talde berekoak diren enpresek –Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan adierazitako kasuren batean daudenak- bakarka aurkezten badituzte kontratuaren esleipenean parte hartzeko proposamen desberdinak).* Ordezkatzen duen enpresa eta ... enpresa, lizitazio honetan, halaber, proposamena aurkezten duena, sozietate-talde bereko kide direla.

Hirugarrena.- *(Atzerriko enpresen kasuan sartu beharko da).* Ordezkatzen duen enpresa Espainiako edonolako auzitegi eta epaitegien mende jartzen dela, kontratuan zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen gorabehera guztietarako, eta uko egiten diola dagokion atzerriko eskumenari.

Laugarrena.- EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAK lizitazioaren harira egin beharreko jakinarazpenak jasotzeko, lehenetsitako bitarteko gisa izendatzen duela honako hau:

- Faxe:.....
- Helbide elektronikoa:.....



- Posta ziurtatua:.....

Bosgarrena.- Berariaz onartzen duela erakunde kontratatzaileak lizitazio-, esleitze- eta gauzatze-prozesuetatik sortutako datu guztiei gardentasun instituzionala ematea (adjudikaziodun gertatuz gero), horiek bukatu arte.

Seigarrena.- Konpromisoa hartzen duela kontratua gauzatzeko gutxienez klausula ekonomiko-administratiboen baldintzen agiri honen 10. klausulan adierazitako giza baliabideak jartzeko.

.....(e)n, 2017ko.....(a)ren.....(e)an
Iz:.....

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

“.....jaunak/andreak,
.....helbidea duenak,
.....NAN zenbakidunak,telefono-zenbakia eta
.....e-maila dituenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun
osoarekin, nire izenean (edo
.....ordezkatuz,
.....,helbidea duena, eta
.....NAN edo IFK zenbakia duena [*pertsona fisikoa ala juridikoa izan*]),
EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAREN biltegiatze-altzarien ekipamendua osatuko
duten elementu guztien produkzioa eta/edo hornidura, instalazioa eta martxan jartzea
kontratatze prozedura irekiaren bidezko lizitazioa arautuko duten klausula ekonomiko-
administratiboen baldintzen agiria eta baldintza teknikoaren agiria ezagututa,

AITORTZEN DU:

Bakarra: Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 60.1 artikuluan eta arlo horretako indarreko gainerako xedapenetan ezarritako kontratatze bateraezintasunik eta debekurik ez duela.

.....(e)n, 2017ko.....(a)ren.....(e)an

Iz.:.....



IV. ERANSKINA. AITORPEN-ADIERAZPENAREN EREDUA, LIZITATZAILEAK KAUDIMENA EGIAZTATZEKO EDO GIZA BALIABIDE JAKIN BATZUK JARTZEKO KONPROMISOA BETETZEKO, BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN EDO BALIABIDEETAN OINARRITU NAHI BADU

..... jaunak/andreak (NAN:, IFZ:.....), enpresaren legezko ordezkari gisa, adierazten du osoki ezagutzen dituelaen kontrataziorako lizitazio baldintzak eta lizitazio horretan parte hartuko duen... (enpresa lizitatzaileraren izena) lizitatzailerak, eskatutako kaudimena du eta adierazten du, atzeraezinezko asmoz, aipatutako lizitatzaileraren esku jarriko dituela, hura esleipendun gertatuz gero, kontratua gauzatzeko beharrezko bitarteko guztiak, espresuki onartuz Kode Zibileko 1.257.2 artikuluan xedatutakoa, zeina ordezteko edo aldatzeko EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAK berariaz baimendu behar duen.

Aipatutako idazkia EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOARI aurkezteak esan nahi du aipatutako konpromisoa onartzen dela, dagokion lizitatzailerak esleipena irabazten duen kasuan.

...(e)n, 2017ko ...(a)ren ...(e)an

V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN, ENTREGATZEKO, INSTALATZEKO ETA MARTXAN JARTZEKO EPEAREN ETA BERMEAREN EREDUA

“.....jaunak/andreak,helbidea duenak,NAN zenbakidunak, nire izenean edoordezkatuz,helbidea duena, etaNAN edo IFK zenbakia duena, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAREN biltegiratze-altzarien ekipamendua osatuko duten elementu guztien produkzioa eta/edo hornidura, instalazioa eta martxan jartzea kontratatze prozedura irekiaren bidezko lizitazioa arautuko duten klausula ekonomiko-administratiboen baldintzen agiria eta baldintza teknikoen agiria ezagututa,

AITORTZEN DU:

1. Konpromisoa hartzen duela EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOAREN biltegiratze-altzarien ekipamendua osatuko duten elementu guztiak hornitzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko, prezio honetan:

- [datzi letraz eta zenbakiz] euro; horri BEZa gehitu behar zaio, hau da,..... [datzi letraz eta zenbakiz] euro.

Proposamen ekonomikoari, informatzeko helburuarekin, azken prezioaren xehakapena atxiki zaio.

2. Konpromisoa hartzen du eguneko epean kontratuaren xedearen hornidura entregatu, instalatu eta martxan jartzeko.

Eskainitako epearekiko koherentea den jardueren kronograma erantsi da.

3. Konpromisoa hartzen du urteko berme-epea emateko.

4. Klausula ekonomiko-administratiboen plegua eta baldintza teknikoen plegu ezagutzen dituela eta, osorik eta berriaz bere gain eta ontzat hartzen dituela.

5. Kontratu hau gauzatzeko indarrean dagoen legediak exijitutako eskakizun eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

6. Horrez gain, bere burua behartzen du lan-, prebentzio- eta zerga-arloetan indarrean dagoen araudia betetzera.

(Tokia, data eta proposatzailearen sinadura)